



Usurbilgo Udala

TXOKOALDEKO ERAIKINEAN KULTUR PROIEKTU BERRITZAILEAK GARATZEKO DEIALDI IREKIA

DEIALDIAREN HELBURUA

Taldeek zein norbanakoek sorkuntza prozesuak garatzeko gunea izan nahi du Txokoalden kokatua dagoen lokalak. (Tren Geltoki Zaharra) Adierazpen artistikoen berrikuntzara, parte-hartzean oinarritutako kudeaketara, eta tokiko eta inguruarekiko loturara bideratu nahi da Txokoaldeko lokala.

Arte eta kultura proiektuek kultura edo sorkuntza sektoreren batean kokatuta egon beharko dute (ikusmen arteak, zinema eta ikus-entzunezkoak, dantza, literatura, musika, antzerkia, zirkua, magia, bertsolaritza, eta abar.)

Kultura jardunbideetatik abiatuta, kultura eta gizarte berrikuntzarako estrategiak planteatuko dituzten ekimenak bideratuko dira bertan.

Bertan garatzen diren ekintzak, beti ere, Usurbilgo herriarentzat onuragarriak eta aberasgarriak izango dira.

Bestalde, Txokoaldeko lokalak erabilera partekatua izatea nahi du udalak. Desberdinen arteko elkarriketa eta lankidetzeta bilatu nahi da bertan. Honenbestez, udalaren esku geratzen da aurkeztutako proiektuen artean, bat baino gehiago aukeratzea. Proiektuen Koordinazio lana lehiatzaileek bideratu behar dute: elkarbizitza arauak, ordutegiak, espazioaren antolaketa...

ESKATZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Norbanako zein taldeek aurkez dezakete proposamena. Bestalde, proposamen bat baino gehiago aurkez daitezke.

PROZEDURA

Deialdi hau lehiaketa bidez ebatziko da, alkatetza dekretuz.

IRAUPENA

Bi urtetarako utziko da lokala. Epe hau, bi aldeen adostasuna tarteko, beste bi urtera luza daiteke.

PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Proposamenak urtarrilaren 23tik otsailaren 10era bitartean aurkez daitezke (Biak barne).

Proposamenak Usurbilgo Udaleko erregistroan edo postaz bidaliko dira. Hona hemen helbidea:

Usurbilgo Udala
Kultura Saila
Jose Martin Sagardia Plaza z.g.
20170 Usurbil

Proposamenak postaz bidaltzen direnean, posta-bulegoan bidaltzen deneko data justifikatu beharko da, eta egun berean e-maila bat bidaliko da udalari euskara@usurbil_eus helbidera.

Lanak euskarri digitalean eta paperean aurkeztu behar dira. Euskarri digitalean: CD edo pendrive batean, aurkeztu beharko da. Lanak euskaraz aurkeztuko dira.

Proposamen bakoitzeko, bi kartazal aurkeztuko dira, –A eta B –, eta hauen kanpoaldean, ondoko datuok jasoko dira:



Usurbilgo Udala

Egilearen izengoitia
A edo B kartazala den (kasuaren arabera).
Txokoaldeko ideia lehiaketa

A kartazala: Gutunazal itxi batean aurkezleari buruzko datuak bilduko dira: izen-abizenak edo elkartearen izena, IFZ/IFK, helbidea, telefonoa, helbide elektronikoa eta hura identifikatzeko behar den beste edozein datu.

B kartazalean: Proiektua aurkeztuzko da. Gutxienez atal hauek jasoko ditu proiektuak:

- Proiektuaren deskribapen zehatza.
- Sormena, sorkuntza eta berritzaile izaeraren nolakotasuna azaltzea.
- Proiektuaren baliabide materialak.
- Dagoen lokala kontuan izanda, erabilera partekatua bideratu ahal izateko dauden aukerak.
- Proiektuaren komunikazio eta zabaltze estrategia.
- Herriko kultur eta gizarte dinamikarekin uztartzeko ekintzen nolakotasuna.
- Proiektuak Usurbil eta Txokoalde zertan aberastuko duten adieraztea.
- Proiektu jasagarria izatearen adierazleak: ingurumena, hizkuntza, parekidetasunaren aldetik.

A Kartazaletan eta B kartazaleko dokumentazioan izengoitia ez den beste izenik erabiltzen bada identifikatzeko, eta izen horrek parte-hartzailea zein den jakiteko bidea ematen badu, parte hartzaile hori lehiaketatik kanpo geldituko da.

HAUTAKETA IRIZPIDEAK

Hauek izango dira proiektuak aukeratzeko irizpideak:

- Proiektuaren formulazioa: landua izatea, zehaztasuna eta argitasuna. (10 puntu gehienez).
- Proiektua originala, sortzailea eta berritzailea izatea (Edukian eta metodologian). (30 puntu gehienez).
- Herriko kultur eta gizarte dinamikarekin uztartzeko ekintzen nolakotasuna. (20 puntu)
- Proiektuak Usurbil eta Txokoalderi ekarriko dion aberastasuna (20 puntu)
- Proiektuaren komunikazio eta zabaltze estrategia (10 puntu gehienez).
- Proiektu jasagarria izatea: inguruarekin, hizkuntzarekin, parekidetasunari lotuta...(10 puntu)

Aurreko irizpideen balioespenean gutxienez 60 puntu lortzen ez dituzten proiektuak baztertuta geratuko dira.

EPAIMAHAIA

Epaimahaia era honetara osatuko da:

- Alkatea
- Udaleko Idazkaria
- Kultura zinegotzia
- Kultura teknikaria
- Txokoaldeko bi herritar (izendatuz gero)



Usurbilgo Udala

PROIEKTUAREN JARRAIPEN AGIRIAK

Proiektua bideratuko duenak, proiektua gauzatzen hasi eta bi urtera, agiri hauek aurkeztuko ditu udalean: Bi urtetan egindako lanaren memoria, bertan, besteak beste, honakoak zehaztuz:

- Berrikuntza eta sormen aldetik bideratu den lana.
- Komunikazio eta zabaltze estrategian egindako lana
- Herriko kultur eta gizarte dinamikarekin nola uztartu den.
- Egindako lanak herria zertan aberastu duen.
- Jasangarritasun irizpideen gauzatze maila.
- Hurrengo bi urtetarako ekintzen aurreikuspena

OHARRAK

Proposamena bera euskaraz aurkeztu eta gauzatuko da.

Administrazioarekin zein herritarrekin izango diren harreman guztiak (ahoz zein idatziz) euskaraz izango dira.

Proiektuak hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista bermatu behar da. Pertsonen irudiak erabiltzekotan, emakumeen eta gizonen presentzia modu orekatuan eta ez estereotipatuan islatu behar da. Izan ere, emakumezkoak eta gizonezkoak neurri berean ekintzaile eta protagonista modura agertu behar dira, 4/2005 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak agintzen duen modura.

Lehiaketa ebatzi gabe geratu daiteke, baldin eta aurkeztutako proposamenek ez badute behar besteko kalitaterik.

Eraikinari dagozkion hornikuntza gastuak (argia, ura) eta eraikinaren mantenu arrunta, baita bere kasuan beharrezko dituzten egokitzapenak ere, proiektua bideratuko duenaren kontu izango dira. Nolanahi ere, edozein egokitzapen egin aurretik, udalaren oniritzia beharko da. Besteei eragindako kalteak aseguratuak dituen Erantzukizun Zibileko poliza bat ere kontratatu beharko dute.

Lehiaketan parte hartzeak ezinbestean dakar oinarri hauek onartzea.

Argibide gehiagorako: 943 371999 / euskara@usurbil.eus